

ttipi-ttapa

1990eko Otsailak 15

32. zenbakia

dohain banatzen da



*Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza,
Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbertze herritara
zabaldu nahi badituzu
deitu 63 11 88 telefonora*

Publizitaterik onena preziorik tikienean

HAMASEI MODULO
(ORRIALDE ERDIA)

12.000 Pzta.

MODULO BAT

900 Pzta.

BI MODULO

1.800 Pzta.

HIRU MODULO

2.700 Pzta.

SEI MODULO

5.400 Pzta.

NON-ZER

- 4. Beharrezko telefonoak.
- 5. Agenda.
- 6. Irakurleak mintzo.
- 7. Karriketan galdezka.
- 8. Hontaz eta hartaz.
- 9/19. Herriz-herri; Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Goizueta, Sara, Bertizarana.
- 20. Erreportaia. J. LARRETXEA
- 22. Elkarrizketa. P. LARRETXEA
- 23. Kirolak. M. ALTZUARTE
- 24. Osasuna. O.M.T.
- 25. Astrologia. F. ALTZUGUREN
- 26. Merkatu Ttikia.
- 27. Denborapasa. ENBIDO

Azken bolada honetan, Leitzako Gaztetxea dela eta, komunikabi-deak izan dute zer erran eta idatzi-rik. Horregatik, jakinminenez hur-bildu gara, zuzen eta bertatik kontuak aditzeko asmoz. **20. or.**



Azken urteotan eskualde mailan lortu izan den kirol eta aktibita-teen plangintza, egoera larrian aurkitzen da. **23. or.**



Europako Ekonomi Elkartean sartu gaituztela eta, nekazaritza osoa eta berekin gaztagintza, birmoldaketa prozesu sakon batetan aurkitzen da. **22. or.**



Otsailaren 6an Lesakako L.L.tik izandako azido isurketa bat delaa medio, berriro ere Bidasoa kutsatu-ta gertatu da. **8. or.**

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1

31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortziritako Euskara Mankomu-nitatea

Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna:

Josemanuel Irigoien

Publizitate arduraduna:

Miren Karmele Tolosa

Erredakzio taldea:

Juainas Paul Arzak, Patxi Larre-txea, Pello Astiz

Ale honetan parte hartu dute:

Roman Harribilaga, Oskar Txope-rena, Pello Apezetxea, Jon Larre-txea, Patxi Petirena, Txema Alda-

be, Iban Isasi, Juainas, Koro Etxe-berria, Koro Irazoki, P. Larretxea, Gotzone & Antton, Mixel, Mattari Altzuarte, P. Astiz, F. Altzuguren, M. Legarra eta Enbidok.

Inprimategia: Antza (Donostia)

Tirada: 2.000 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazi-tako erranen eta eritzien erantzun-kizunik.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- SOS Nafarroa088
OSASUN ZENTRUAK
 Elizondo.....452367 / 580235
 Doneztebe594300
 Lesaka.....637428/637336
 Leitza510248 / 510573
KONTSULTAK
 Arizkun587039
 Gartzain580451
 Oronotz-Mugaire592024
 Ituren594183
 Sunbilla.....594283
 Goizueta514067
 Igantzi637755
 Arantza634131
 Bera.....630929 / 630036
 Etxalar.....635105
 Urdazubi.....599130
ANBULATORIOAK
 Irun630264/621106
OSPITALEAK
 Irungo ospitalea614444
 Nafarroako ospitalea251500
 SSKo urgentzi zerbitzua246750
 Virgen del Camino
 erresidentzia262700
 Gurutze Gorria.....226404
ANBULANTZIAK
 Oitz594242/594342
DYA
 Lesaka (larrialdiak).....(943)464622
 Elizondo (larrialdiak).....171717
FUNERARIA
 Lesaka.....637404
SUHILTZAILEAK
 Oronotz-Mugaire592044
GARRAIOAK
 Bidasotarra630279
 Baztanesa580129
 Leizaran515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:
 Elizondo580730
 Lesaka637154
 Bera630104
ABERIAK:
 Iberduero594335/594336



314 kilo

Rekord berria ezarri zuen Iñaki Perurenak otsailaren 10ean 314 kiloko harria leporatuz. Ikuskizun aparta hori, Donostiako Anoetan ospatu ziren Euskadiko 6 orduetan gertatu zen.

Gurutzegramaren soluzioa

Aurreko alean argitaratu genuen gurutzegramaren soluzioa eskeintzen dizuegu hemen.

Seguro, bat baino gehiago kezkatuta ibili dela soluzioa ezin aurkituz. Ez da harritzekoa... izan ere akats ttipi bat baitzegoen.

DENBORA PASA

	Skizeta	E	Egurren	G	H	H	Italo
	▲	S	T	I	F	▲	R
	▲	K	I	R	O	L	▲
	▲	G	O	R	O	S	T
Zakia	S	Ain	L	O	Ukaintze	E	▲
▲	▲	▲	▲	▲	▲	▲	▲
Arrialdi	H	▲	R	N	▲	▲	▲
▲	L	▲	R	R	I	▲	▲
Segurak	T	R	I	K	U	▲	▲
▲	O	S	A	T	U	▲	▲
Leku	▲	I	Z	T	E	R	▲
▲	H	▲	N	▲	V	N	▲
▲	▲	▲	O	▲	E	▲	▲
▲	▲	M	E	T	Z	▲	▲
▲	▲	▲	K	E	Z	▲	▲

▲ zipi-nape erretxiki atxiki

15 ORTZEGUNA

-**Elizondo**, arratsaldeko 5,30etan Baztango EKBren bilera Arizkunenea Kultur Etxean. Irakaskuntza saila.

16 ORTZIRALA

-**Lesaka**, arratsaldeko 5,30etan, Lesakako Herriko Etxean, Kirol entitateen bilera.

-**Etxalar**, arratsaldeko 7etan. Euskara Batzordearen bilera Zentroan.

17 LARUNBATA

-**Goizueta**, Hitzaldia. Gaia: Euskara Administrazioan.

18 IGANDEA

-**Bera**, Ateraldia Larun mendialdeak antolatua "Hiru Iturri-
ra".

-**Doneztebe**, Euskadiko Kros-
sa.

-**Elizondo**, Dantzaldia "Me-
tropolis" taldearekin. Lekua ikas-
tola.

-**Lesaka**, Dantzaldia "Egan"
taldearekin.

22 ORTZEGUNA

-**Igantzin**, arratsaldeko 6,00etan, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Aholkularitza Batzordearen bilera.

24 LARUNBATA

-**Lesaka**, Gau-Pasa 12etan hasita. "Kanka", "Zentzerrok" eta "Aritza" taldeekin. *Ikastarik* antolatua.

25 IGANDEA

-**Bera**, Larun mendi taldea Elizondora.

-**Elizondo**, Dantzaldia Atabal Taldearekin. Lekua: Plazan.

27 ASTEARTEA

-**Arantza**, arratsaldeko 6etan Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakikorra-
ren bilera.

GOARDIAKO FARMAIAK

-**Otsailaren 17-18an** Bera eta F. Iturralde (Elizondo).

-**Otsailaren 24-25ean**, Aran-
tza eta F. Lezaun (Elizondo).

BIDIAIK

-**Arkupeak** antolaturik, Bidaia *Tierra Santara* apirilaren 21etatik 29a arte. Izen emateko epea otsailaren 19tik 22ra. Prezioa: 136.000 pzta. eta Arkupeko bazkideentzat 125.000 pzta. Tfnoa.: 59 41 44



ARROPA ETA OPARI DENDA

EXIMELETA

Mercaderes 9
DONEZTEBE



MALDAERREKA S.A.
«La Suiza» Aseguro
mota guztiak

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



ERLOJU ETA BITXI DENDAK



Legia 1, BERA Tfnoa: 630751 Merkatua k. DONEZTEBE

KONPONKETAK EGITEN DIRA

Kasu gehiago suarekin!

Dirudienez, suak nolako kalteak eragiten dituen ez dugu ikasi. Bertzela ausardiari egokituko nioke lehengo eguneko gertaera Etxalarko zabortegian. Ohitura den bezala herriko zaborra bildu, zabortegira eramán eta su eman zioten. Ez zuten kontutan hartu egun hartan egiten zuen haizea eta ingurua aspaldiko partez arrunt idortua zegoela. Gertatu beharrekoa gertatu zen eta han dauden larrak eta zuhaitzak sua hartu zuten. Gero etortzen dira apuroak..., presaka eta korrika bonberoak deitu Herriko Etxean abisua eman, jendea bildu eta itzaltzera. Eskerrak arratsaldeko 8ak aldera gertatu zela eta han bizi garenak konturatu ginela suak beranduxeago haztuz gero, kaltea izugarria bihur zitekeen. Zergatik honela ibili eta ez zentzu pixka batekin, zaborra bertan utzi, beste egun batean sua emateko?

Zimeldi

Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzitako 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izendeituraz eta karneta zenbakiaz

izenpetuakbidaliko dira. Denaden zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezizen edo izen-goitiz argitaratuko genuke.



yoan

Zapatadenda

Beraketa, 13 IRUN Tfnoa. 62 15 74

BERRIAK ETA
ERABILIAK.
INPORTAZIO-
KOAK ETA
NAZIONALAK.



Elcano, 3 IRUN Tfnoa. 644900



Gozotegia - Ostatua

Eztegara 8 - Tfnoa. 63 02 54
BERA

Laila

MUSIKA DENDA

San Esteban 37
Tfnoa: 63 10 59
BERA

Dirudienez, L.L. instalazioak haunditzeko asmotan dabil. Lanpostu berririk sortuko ote da? Zer iduritzen zaizu?

Lesakan egina




Aszen Ordoki, 50
urtekoa eta lanbidez
bulegaria.

Ez dut uste. Beti be-
zala jarraituko du, kon-
tratu ebentualak eta ho-
rrela. Ez dago deretxorik
hemengo jendea paroan
egotera.

**Marcelino Sanjur-
jo, 61 urte eta ostala-
ria.**

Laminazioak, eben-
tualak eta hartzen ditu.
Gazteak sartzea Lami-
nazioetan besteei ju-
bilazioa emanez gauza
polita izanen litzateke.





Maidier Susperregi,
15 urte eta ikaslea.

Gaizki, ez dago lan
aunitzik. Ez dute jende
fijorik hartuko eta berdin
segituko du.

Alix Mitxelena, 24
urte.

Ez da deus aldatuko,
nahi dutena egiten se-
gituko dute eta horren
arabera funtzionatuko
dugu fabrikaren men-
pean.



Nerea
Oinetakoak
San Miguel 2, DONEZTEBE

BEKO ERROLAK
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 637826
LESAKA


GOIZUETA KIROLAK
Kirolak
Mendi Artikuluak
Behoko Plaza 10 LESAKA

OSKORRI
LIBURUDENDA
Petrinea Tfnoa: 59 22 45
ORONOTZ-MUGAIRE

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Behoko Plaza 8, LESAKA

Zkáláldó

LESACA

Medikuaren kontsultara joatera behartuz gero, aintzinetik gelditzeko sistema eratu da

Sistema hau, bi mediku dau- den Osasun Zentrutan antolatu da.


Edozein herritarrek aurrez telefono batera deituz gero, badaki medikuak zein ordutan hartuko duen, horrela egongelan ez da jenderik pilatzen eta denbora luzez zai egoten. Hauexek dituzu telefono zenbakiak horiek:

Lesaka.....637428
Bera.....630929
Leitza.....510248
Elizondo.....452367

Telefono guzti hauetan euskaraz badakite. Euskaraz mintzatu.



Frantxisku Graziarenak ez zuen Arkupekoek eskeini zioten omenaldira agertzerik izan. Bere orde, Mikelek, bere semeak, hartu zituen Frantxiskuri eskeinitako oroïgarriak.



Lesakako Laminazioak (L.L.)k, otsailaren 6an, berriro ere Bidasoa kutsaturik utzi du. Inor gutti enteratu da. Badirudi horrelakoak isildu nahi izaten dituztela. Bistan zeuden amuarrain, aingira, izoki-kimu, zarbo... zakutan bildu eta... hemen ez da deus gertatu!

BELARTEGIA - APAINDEGIA

UNTZA

ONDORENGO ZERBITZUAK ESKEINTZEN
DIZKIZUE

- ✓ MEDIKU NATURISTA KONTSULTA
- ✓ MEHETZEKO DIETA EGOKITUAK DOHAINIK
- ✓ AURPEGIRAKO ETA GORPUTZARAKO TRATAMENDUAK
- ✓ BIPILTZE ELEKTRIKOA -behin betiko eta garantizatua-

Francisco Gaintza,1 IRUN Tfnoa: 62 45 45


LAISTER ZABALIK

ZAROS

P/ EZTEGARA Z/G
(PILOTA LEKU ONDOAN)
BERA

**GEHIGARRIAK eta GAZTE, GIZON
EMAKUME eta
HAURREN - MODA**

Idatzirik Agerra auzoko udal jolas parkearen eraikuntza egitasmoa



Agerrako Jolas Parkearen maketa

ROMAN HARRIBILAGA

Denbora gutti barru Agerra auzoak udal jolas parke bat izanen du bertako bizilagunen atsedenerako. Egitasmoa Maria Urmeneta eta Frantzisko Txokarro arkitektoek idatzirik dago. Lanaren adjudikazioa egin ondoren, egitasmoa aurtan hasiko da burutzen.

Bi zatiz osatuko den Jolas Parke honek, 3.682 m. karratuko azalera izanen du guztira.

Egitasmoaren ezaugarriak

Txirindularitzako pistak, mailako ziklo-kross deman aritzeko jarriko zaizkion oztopoak izanen ditu. Frontoia estaligabea, jolastokiak, eta irris-tailuentzako pistak ere egingen dira. Ondoan, iturria eta zuhaitzen itzalpean aulkiak jarriko dira.

Argikuntza farolekin antolatuko da nahiz eta arratseko erabilpenerako gerora begira argi dorreak paratu ahal izateko kutxetak eginak utzi.

Parkea, orohar soropil landaketa eta aulki, paperontzi eta farolez hornitua izanen da. Kanpoaldean, erai-

kuntzatik at, alegia, ormigoi tratatuaz zolaturiko polikiroldegi pista mugatua prestatuko da, ergaloez inguratua, eskubaloiko pista baten neurriekin.

Aurrekontua, BEZa barne, 25.052.069 pezetatakoa da.

“I. Literaturgintza Euskaraz” lehiaketan sarituak

Herrialde osorako Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Sailek garatutako lehiaketan sarituak izan dira: **OHoko kondagintza:** 1. saria (100.000 pza.) “*Irabazirik ez*” lanarekin Ainhoa Irazoki Zubieta, 13 urtekoa; 2. saria (70.000 pza.) “*Giltza miragarria*” lanarekin Iker Igoa Txantre. **Ipuingintza:** 1. saria (70.000 pza.) “*Auskalo*” lanarekin Naroa Azpillaga Moreno, 12 urtekoa; 5. saria (40.000 pza.) “*Beti berdina*” lanarekin, Jon Irazoki Zubieta, 11 urtekoa; 6. saria “*Jaxintoren barrazkilea*”-rentzat, Jon Urrotz Telletxearena eta 7. saria “*Abentura mediana*” lanarekin Maite Larretxea Errandonea. Guztiak Labiaga Ikastolako ikasleak dira Iker Igoa Txantre izan ezik, berau, Jesusen Bihotza ikastetxeakoa baita.

■ Xabi Oteroren argazki erakusketa

Iragan otsailaren 4etik 10a arte Jamoteneako egoitzan, Gure Txokoako Kultur Sailak antolatuturik, Iruñeako Xabi Otero artista euskaldunaren argazki erakusketa zabalik egon da. Bisitari aunitz izan duen erakusketa arrakastatsu honetan *Saharai Herria* izenburuko liburuan bildurik agertzen diren argazkietako 28 lan aurkeztuak izan dira.

■ Inauterietako egitaraua prest

Hona hemen Gure Txokoa Elkartearen laguntzaz Udal Kultur Batzordearen babesa eta antolakuntzaz garatuko den egitaraua: otsailaren 17an, 7etan, *Kaldereroen ibilaldia*; 9,30etan Rikardo Baroja ikastetxeko jangelan *Herri Afaria*; arratsalde eta gauez “Los Incansables” txaranga. Otsailaren 25ean, igandea, 11etan *Iñudeak eta Artzaiak*; 8etatik gauerdiko 12ak arte, Altzaten, dantzaldia “*Joselu Anaiak*” taldearekin. Otsailaren 26an, astelehena, arratseko 8etatik 9etara, Altzaten, *Mozorroen Sariketa*; ondotik sari banaketa kioskoan. Lehiaketa bakarka, bikoteka etra taldeka egingen da. 8,30etatik gaueko 2,30ak arte, Altzaten, dantzaldia “*Izan*” taldearekin. Otsailaren 27an, asteartea, arratseko 10etan, Jamoteneatik Altzateraino *Entzierroaren ibilaldia*; 7,30etatik 11,30ak arte, Altzaten, dantzaldia “*Jator*” taldearekin.

Otsailaren 1ean sinatu zen L.L.etan hitzarmenaren egokiera

P. ASTIZ

Soldatak

Jakina denez, iaz egin zuten Lami-nazioetan 2 urtetarako komenioa. Pasa den urteko igoera %5ean finkatu zen, urtearen hasieratik, urtean azkenean bizimoduaren igoeraren portzentaiari puntu bat gehituz. Beraz, Kontsumo-rako Salneurrien Indizea (K.S.I.) %6,9koa izan denez 1989ko soldaten igoera %7,9koa suertatu da.

Aurtengo berriz, hau da 1990rako, hasieratik % 5a aplikatuko dute eta urtearen azkenean, K.S.I.ren igoeraren arabera, horrela geldituko litzateke:

- K.S.I.a %4 edo guttiagokoa baldin bada K.S.I.a + %2a.

-K.S.I.aren igoera %4 eta %4,5aren tartekoa suertatzen bada, K.S.I.a %4tik hamarren bat igotzen den heinean %2ko sumagaia hamarren batean jeitxiko da.

- K.S.I.a %4,5 edo gehiago baldin bada K.S.I.a + %1,5.

Ordutegia

Urteko lanordu efektiboak, 1.708,4. Egunez, 2 eta 3 turnotan ari direnentzako oporraldiak 22 lanegunekoak izanen dira eta korretornosekoentzat berriz 23 lanegunekoak.

Konpentsatorioak, egunezko turnoak 9 egun izanen dituzte, 2 eta 3 turnokoek 12 eta korretornosekoek 34.

Lesakako Inauterietan ikastarik gau-pasa antolatuko du

Bortzirietako eta Malerrekako euskaltegiek antolaturiko *gau-pasa* hau Otsailaren 24ean (larunbata) izanen da eta gaueko 12etatik aurrera. Parte hartuko dute: **Kanka, Zentzerrok eta Aritza.**

Ordubiak aldera 2 abeslari ospetsuen ekitaldia eskeiniko da: **Mikel Jaksson** eta **Kina Turner**. Mozorro-tuak eta edozertarako prest joateko erratan digute antolatzaileak.

■ Kanka taldeak maketa bat grabatu du

ETXE-TXAR izenarekin kalera-tu da talde honek berriki grabatu duen maketa.

■ Biurrana eta Auzoberriko bideak adjudikatuak daude dagoeneko

Urtarrilaren 26an egindako ple-noan Berako Chantreri eman zitzaion obra hauen adjudikazioa, 4 hilabetetako epea izanen dutelarik hau egiteko.

■ Ikastola berritzeko obrak laister hasiko dira

Nafarroa Oinez egin zenetik, luze izan da bidea obra hauek gauzatzeko. Badirudi mila arazo tekniko gainditu ondoren laister hasiko direla obra horiek. Ikastolako irakasleek eta gurasoek ametsetan duten hori, behingoz beraien haurrak edo lana kondiziotan egingen dute

ETXALAR



Ortzegun gizen

PELLO APEZETXEA

Urtero beren programari tinko eusten diotenak haurrak ditugu, ORTZEGUN GIZEN-eko protagonistak. "Urtzain gizen, urtzain gizen, zingar arraultze, bat ez bada bertze". Eske kanta hori errepikatuz, besotik zintzilik saskitxoak daramazkitela, ttikien ahots xuriek karrika beteko digute, beti bezala, goizez. Bazkalon-doak (hiruak aldera) denak bilduko ditu: Trikitixaren soinu alaia lagun, auzoka antzerki saioak emanez, he-



rriari itzulia burutuko dutelarik. Aurten bortz antzerkilari talde ikusi ahal izango ditugu, herriko eskoletan eta ikastolan dabilzan 60 haurrak. Prestaketa lanetan buru-belarri sartuak egonagatik, ez iezaiezueta galde egin zein edo nolako antzerkia eskeiniko duten: hori sekretua da. Urte gehiengtan bezala, maestrak eta andereñoa dira aurten ere haurren prestaketa lana zuzentzen ari direnak. Oraindik seguru ez bada ere, aurten bilduko den haur kopurua haundiagoa izanen da, Arantza eta Igantziko haurrak etortzen badira. Horrelako asmoak badabilza eskoletako irakasleen buruetan.

Suak kaltetuei laguntza

Abenduko sutearen ondorioz kaltetutako bordak nahiz zerrakurak lehenbailehen konpon daitezzen, alertze

eta akazia zura dohainik (debalde) eskeintzea erabaki du Udalbatzak urtarileko bileran. Beharko diren arbolak markatzeko agindua ere eman du.

Pilota plazan argiak

Ilunduta ere pilotan aritzerik izanen dute pilota zaleek. Pilota plaza argiztatzeko akordioa hartu baitu Udalbatzak. Argien instalakuntzaz Berako "Electricidad Maritx" jabetu da. Beti biztuak ezin direnez eduki, jokatzera joaten den jendearen esku geldituko da noiz egin, aparailu batek biztuko baititu bertan sartutako sosa-ren truke.

Aurtengo kontribuzioak zenbait aldaketa dakar

Lur-zatien katastroa berritu da eta urriaren 26an onetsi zuen Udalbatzak

katastro berria. Hori dela eta, lurren balorapena berritu egin da "katastro balioa" (*valor catastral*) izena duena. Balio honen % 4a da "Katastro errenta" (*renta catastral*), beronen % 5a izanen delarik ordaindu beharra. Dena den, katastro berritze honek ez du zerikusirik lurren jabetzaz dauden eztabaida eta erreklamazioekin. Hauek beren bidea eramanen dute.

Banketxe bulego berria

"Caja Rural de Navarra" k bulegoa (Ofizina) irekitzea erabaki du Antsolokueta auzoan. Legezko diren Udal baimenak eskatu eta baieztuak dauzka dagoeneko.



IGANTZI



Igantzikiko Biltokin, urteko batzarrea

OSKAR TXOPERENA

Hilbeltzaren 27an urteko batzarrea izandu zen Igantzikiko Biltokin. Tratatutako gaiak hauexek izandu ziren:

1. Juntak urteko kontu eta aktibitateen berri eman zuen. Bere onarpe-

na eman zion batzarreak guzti honi.

2. Juntak proposaturik, elkartera sartzeko kuota 12.000 pezetatik 15.000tara altxatzea onartu zen gehiengo osoz.

3. Baita ere 17 urtetik 18tara biltoki ttikiko bazkideek elkarte haun-

dian sartzeko baimena izatea erabaki zen, sozio gisa 18 urte arte sartu ezin badira ere.

4. Juntaren eskutan utzi zen batzarretara ez agertzeko justifikantearen onarpena, hau da, zerk balio duen ez agertzeko zehaztea.

5. Sozio kopuruaren gora-beherak aipatu ziren. 11 Sozio berri (10 biltoki-ttikitik); 5 baja.

6. Azken puntua juntako zenbait partaideren aldatzea izandu zen. Horrela gelditu zen: Presidentea: *Jesus M. Matxikote*; Diruzaina: *Rosa Sein*; Bokalak: *Eulogio Mitxelena, Iñaki Hita, Antonio Guerra*. Bertze gairik gabe bukatu zen bilera.

Rumaniarako laguntza

Rumaniara zenbait jan eta botika bidaltzeko kanpaina burutu da Igantzi eta Arantzako Parrokia eta Igantzikoko Udalaren babespean.

Kanpaina honen ideia egunkarietan agertutako zenbait oharretik atera zen.



Inauteriak Igantzin ere

Inauteriak antolatu asmoz bildutako gazteek, programatxo bat eman digute eskutara. Aurten otsailaren 16 eta 17an izanen dira eta hauxe da programa: *16an*, arratsalde eta ilunabarrez Igantziko Bentan ibiliko dira mozorroak eskian, akordiolari eta guzti; 9,30etan, afaria Igantziko Bilto-kin. Ondoren musika herriko plazan. *17an*, egun guztian zehar herrian eta auzoetan mozorroak eskian; 9,30etan, afaria, jendea mozorrotuta joanen delarik. Ondoren, musika herriko plazan.

Anima zaitzete eta ongi pasa!



Ohar hauek Gurutze Gorriak eta Korreosek hartutako akordioa zekarten, hau da, jendeak 20 kilo azpitik bidali nahi zituén pakete guztiak Korreosek dohainik bidali zitzakeela Rumaniako Gurutze Gorrira. Guzti hau zela eta, hasieran aipatutako erakundeek kanpainatxo bat antolatu zuten Igantzi eta Arantzán. Epea hilbeltzaren 26ean bukatu zen eta bildutakoa dagoeneko bidean dago. Gutti gora-behera 1000 kilo bildu ziren eta 75 paketetan banatuak joan dira.

Behar gorrian daudela jakinik ez litzateke txarra kanpainia hau gainditzeko herrietara zabalduko balitz.

ARANTZA



Odolkiak egiten diren bezalakoak izaten dira... eta inauteriak berdín

JON LARRET XEA

Izenburutzat jarri dudán zita honexekin bukatzen da Arantzako inauteriak aurkezten duen kartela. Zita originala izateaz gain, nolabaiteko haserrea ere erakusten du, izan ere, azken urteotan jendearen parte hartzea, eskaxa izan baita.

Lehen ere izan omen dira gora-beherak garaiaren arabera bainan

hala ere, gerra garaiko eten tiki hura kenduz beti ospatu omen dira.

Beti ere herriko gazte talde batek hartzen du bere gain antolakuntza lanak eta azken urteotan udalaren diru laguntza ere jaso du. Gazte talde hau, ortzeguna eta ortzirala baserri-erriak ibiltzen da eskean akordeoi soinu eta algaraz. Larunbatean, herrian ibiltzen da eta gaez, gau-

pasa, mozorrotuen desfilea etab. Igandean berriz herri-kirolak eta bazkaria. Hau izaten da azken urteotako ohitura.

Nekane Telletxeak 3. saria irabazi

Nafarroako Gobernuak antolatutako "I. Literaturgintza Euskaraz" lehiaketan, ipuigintzan, Nekane Telletxeak 3. saria (40.000 pzta.) eskuratu du "Mutil zoritxarrekoa" lanarekin.

Erizaina joan zaigu

Hainbertze urtetan erizaina izan dugun Ondartxo, Iruñera doaie. Pena ederra uzten du herrian, izan ere, Ondartxo erizain ona izateaz gain pertsona eskuzabala eta prestua ere baita.

Haize ikaragarriak

Bai, oraintxe aspertuta gaude haize ikaragarri hauekin; batzuetan teilak, bertzetan leihoak... pixkana-pixkana etxe guztiak eraman behar ditu. Nor ote da hainbertzeko haizeak bidaltzen dizkiguna? Zubietarrak ote dira? Oraingoan ere leia bila? Ez dakit, bainan alde hartatik dator beti ere.

Oizko Herriko Etxea aurten berrituko da


TXEMA ALDABE

Dagoeneko memoria egina baldin badago ere, aurrekontua prestatu gabe dago. Etxearen goikoaldean logelak egonen dira; erdikaldean, ostatua, sukaldea, jangela eta bileretarako aretoa; azpikaldean komunak eta orain dagoen elkarte. Oraindik ez badakigu ere noiz hasiko diren berritze lan hauek, ziurra da gehientsuena auzolanean egingen dela.

Bertzalde, bertako elkarte moldatu berria da. Zeramikazko zola paratu, haunditu (parea botariz) eta armairuak eta gasezko sukalde berria. Moldatzearen balioa 825.000 pzta, eskulan guzia auzolanean eginez. Elkarte hau astebururo irekitzen da.

Ameztiko luberriak subastara ateriko dire

Oitzko Amezti aldean dauden 17 belagietatik 2 berehalaxe subastara



aterako dire, nahi duenak har dezan. Oroiterazi behar da, Oizko udalak zenbait herri-lur belagi bihurtu zuela gero subasten bidez emateko.

Askapenari 25.000 pezeta-tako laguntza

Udalak azkeneko bilkuran 25.000 pztatako laguntza ematea onartu zuen. Diru laguntza hau El Salvadorrera igorriko da bertako egoera latzari nolabait aurre egiteko.

Aho batez ere onartu zen bestetarako erabiltzen den kioskoa haundi-

tzea. Baita saskibaloirako saski eta hauek eusteko burniajea erostea ere. Honekin batera eskubaloiaz jokatzeko porteriak ere erosiko dituzte.

Urrotzen pistak moldatzen ari dira

Legarreko bordatik Arzuagaren behitegira doaien pista moldatzen ari dire. Zenbait tokitan brea bota eta maldetan berriz, hormigona. Guztira 12.874.456 pzta. gastatuko dituzte moldatze lan hauetan.

SUNBILLA

Trenbideari ormigoizko zola emanen zaio Doneztebetik hasita Espelosingo zubiraino

PATXI PETRIRENA

Aunitz aldiz moldatu baldin bada ere, bide hau hain erabilia denez eta zelai-zelaia izatean urbideak egitea zaila denez, beti zulatua eta hondatua egon da. Gainera, bertako baserritarak ez ezik, mendiko lanetan ari diren kamioiak ere aunitz ibiltzen dira.

Oraingoan, ordea, luzerako kon-

ponbidea eman nahi zaio, hormigoia kapa bat emanez. Sainz de los Terreros ingeniariak akituxea izan behar du proiektuaren zehaztapena eta lanak urte honen barranean hastea espero da, bukatzeko epea heldu den urtea izanik.

Hasierako estimazioen arabera, gastoa 84 milioitakoa izan daiteke, horren %70a Nafarroako Gobernuaren



Deus ez balitz bezalaxe.



gain joanen delarik eta gainerakoa, %30a, Lau Herrien gain, Doneztebe-ko eremua den zati bat ezik.

Euskara hobetzeko ikastaroa antolatu da herrian

IKASTARI-k, euskaraz mintzatzen dakien jendea idazten eta irakurtzen trebatzeko ikastaroa prestatu du eta Otsailaren 15ean hasiko da. Dagoeneko izena eman dutenez gain norbait interesaturik balego, ikastolako gurasoekin egotea aski luke. Era berean, bertze talde bat osatzeko posibilitatea ere badago, mintzatzen trebatu beharrekoentzat, baina lagun gehiago behar dira.

Orain dela bi urte emandako ikastaroez geroztik hutsune bat izan bada ere, orain jarraipena ematen zaio, eta Maiatza arte iraunen dute ikastaro hauek, Urritik aintzinerara berriz segituz.



Frantxisku Graziarenak omenaldi ederra jaso zuen

Frantxisku Graziarenak ehun urte bete ditu Otsailaren 1ean. Sunbillako "Espelosin" baserrian jaioa, baserriko lanetan ahalegindu da bere bizi guzian. Osasuna ezin hobea izan duen gizon honek, bere urtebetetze aurretik bronkitis bat bereganatu zuen; hori dela eta, antolatutako eginkizunetan berak nahi bezala parte hartzerik ez zuen izan.

ARKUPEAK eskeinitako omenaldian 650 lagun bildu ginen. Bere aitaren ordeztu, Mikelek hartu zituen opariak nahiz eta batzuk baserrian berari eskutara emanak izan. Azpimarratzekoa da sunbildarren borondatea egun hori prestatzen laguntzeagatik eta eginkizun guzietan parte hartzeko moduagatik. MARTIN LEGARRA

ITUREN

Iturengo joaldunak Alcoy-ra joanen dira



IBAN ISASI

Iturengo joaldunak, hau da, Iturengoak eta Aurtiztarrak, Alcoy-ra joanen dira apirillean bertan eginen den "Moros y Cristianos" izeneko bestara.

Alcoy-koak Iturenera etorri ziren bertako joaldunak kontratatze-
ra. Aurten besta honetan nafartarren taldea izanen da bestari hasiera emanen diona. Bertzalde, 40ren bat joaldun joanen direla espero da Alikanteko herri horretara.

Ihauteriak ezin hobeki

Otsailaren 3an bukatu ziren Iturengo ihauteriak "zahar eta kontuen" egunarekin. Egun honetan herri kirolak, bazkari eta afari herrikoiak, joaldunen kalejira eta dan-

tzaldia izan ziren. Jende ugari bildu zen antolatutako ekitaldi guzietan.

Udalak bi etxe berritzeko baimena eman du

Elizetxea Iturenen eta Piperrenea Lasagan izanen dira oraingoan berrituko direnak. Lehenengo kasuan, Elizak egin duen eskaeran, teilatua berritzeko asmoa agertu du; bigarrenean, etxea osotara berrituko da.

Idazkariari kontratua luzatuko zaio

Peio Oskoz Iturengo Udaleko idazkariari urte bete gehiago luzatuko diote kontratua.


Idazkari honek kontratu honekin 3. urtea egingo du Udal honetan lanean.

Apustuak eta iñotiak

JUAINAS

Joan dira denak, hagitz politik suertatu ondoren... Haiek juergak, jan eta edateak, mozorroak eta joaldunak, kanpoko jendaira, kotxe trabatuak... Peleiak, begikoak izan dira, kolpez ala negarrez aunitz gorrituak. Aizkoraren aferan Joxek irabazi zuten eta poltsiko batzuk hustu ziren... bestek bete behar. Taberneruk neguko abuztua egin dute eta hemen gaude denak, eguneroko normaltasunera bueltatu nahiean... gripe, ez tul agari aditzen dira, ondorioak ote dira?

Akordeonista ez zen gustokoa gertatu. Eskerrak Jon Mikel eta Arantxi hemen zeudela. Hemen dugu baita ere Fermin, atabalero hobe zina, jendea mugiarazteko munduan den onena.



Jo eta ekia

Iskanbila pixkat, Ittango Alkate jaunak "Diario de Navarra"n eginitako deklarazioak sortu zuten, Zubietatik gauzak desberdin ikusten bait dira,; joaldunen artean batez ere. Nik neronek, iñotia espektakulo bat ez bihurtzearen aldekoa naiz. Izatekotan, ongi pasatzeko aitzaki bat besterik ez! Turismoa garatu behar badugu, gure kalterako ez dadila izan!

Basurdeak azkenik!

Eta iñotiak borobiltzeko, larunbat goizeko kotxe bozinazuak! Peskatera, butaneroa eta Josejuan denak batera ailegatuak zirudien. Leihora ateri eta... zer zen? Benanzion kotxea apainduta. Bat ez, bi basurde. Bat haundia eta bestea ttikia. Hueskan ez Txitxillon botiak. Gainera... gosaldu, gibelak afaldu... Berriro basurde jateren bat izanen da!

Inauteriak

KORO ETXEBERRIA

Herri batzutan igaroak badira ere, oraindik, badago nahi duen guztiarenizat festarako aukera eta ez nolana hiko gainera; hagitz onak dira Goizuetako inauteriak.

Hil honen 25, 26 eta 27an ospatuko ditugu. Igandean hasiko dira eta dantzatzeko aukera izango duzue arratsaldez eta gauez "Naygi" taldearekin. Astelehenean, otsailak 26, ohi-tura den bezala, mozorroak baserri baserri ibiliko dira alaitasuna eta umorea zabaltzen. Arratsaldez eta gauez musika plazan trikitixarekin. Astearteko, otsailak 27, ikuskizunak, herrian

burutzen dira. Goizez, 11,30tik aurrera mozorroak herri guztian zehar *suelto* dantzatuko dute. Bazkalostean *zahagi dantza*. Ilunabarrean eta gauean trikitixa plazan.

Mozorrotzeak, urtetik urtera arrakasta haundiagoa lortu du; badira 3 egunetan egiten direnak. Batzuk sormen haundia azaltzen dute; ikusgarriak gertatzen direlarik. Aurten ere ez da gutxiago izango!

Otsailaren 24ean antzerkia

"Txumeta" antzerki taldeak eskeinirik, "*Behin batean Goizuetan bazen...*" antzeslana ikusi ahal izanen dugu otsailaren 24ean zineman.

▼ Okerrak zuzentzen

Azkeneko alean, Frontoiaren berritze lanak zirela eta, hanka sartze nabaria izan genuen. Titularrean, "Frontoiaren berritze lanak osatu ahal izateko, Udalak diru laguntza eskatu herritarrei" zioen tokian, zera jarri behar luke: "*Frontoiaren berritze lanak osatu ahal izateko, Umore Ona Elkarteak diru laguntza eskatu herritarrei*".

ZUGARRAMURDI

Urdazubi eta Zugarramurdiko eskolako ikasleak igeri ikasten

KORO IRAZOKI

Joan den urtarrilaren 17an Urdazubi eta Zugarramurdiko eskolako ikasleak igeri ikasten hasiak dire: 4. mailatik hasiz eta 8. erainoko haur guztiak asteazken goizeko 11etan Ustaritzeko piszina klimatizatuan ordu bat klase hartzen dute. Haraino gateko Sarako eskolako autobusez eta bi kotxe partikularrez egiten dute.

Ikastaro hunek 11 aste iraunen du eta gero haur ttikiak hasiko dire, pre- eskolarretik 3. mailaraino. Ikastaroa eta transportea gurasoen elkarteak ordaintzen du momentuan bainan espero dute udaletxeen laguntza ere laster hartuko dutela.

Mirakuluak

Gure herri hau sorginen herria dela diote, bainan ikusi dugu mirakuluak ere gertatzen direla noizbehinka: joan den egun hoietan batean Daniel Erre-




kutxeko ostaturat sartu omen zen eta han *kas-naranja* bat eskatu omen zuen, Manolok, harritua, ixil-ixilik zerbitzatu zuen; bainan ez zen dena hemen gelditu eta gero Plaziorat joan eta han berriz *mosto* bat hartu omen zuen. Ah! baino hemen Elentxu ez omen zen ixilik gelditu eta (berdin harritua, hori bai) galdetu zion "*ia ze demontre gertatzen zitzaion bere kalimotxo saildua alde baterat uzteko eta mosto eta halakotan hasteko.*" Expplikazionea bat bakarra izan daiteke eta huraxe zen, bai: Daniel eri edo

gaixo gripe tzar batekin egona zela eta orain bere burua pittat zaintzen ari zuela.

Obrak Errekutxean eta maestruen bizi-tokian

Aspadi huntan Errekutxean egin beharrak ziren obrak iduri du huntan ia ailegatzen direla eta laster etsiko dute sukaldea, jatetxea eta ostatua berritzeko. Baita ere, maestruen bizi-tokia berritu behar omen dute luze gabe, eta tarte hortan maestruak etxe partikularretan biziko dire.

BAZTAN



Lekarotz

Akordiorik gabe Lekarozko ikastetxearen salerosketan

MAÑONE

Zenbait bilera egin ondoren, Lekarozko Aita Kaputxinoek eta Nafarroako Gobernuak ez zuten akordiorik lortu ikastetxearen salerosketan. Dirudienez, arazorik haundiena langileen etorkizuna izan da. Gobernuak ez ditu bere gainean hartu nahi. Gaur egun,

hogeitamar pertsona ikastetxean egiten dute lan, denak baztandarrak, batzuk berrogeitamar urtetik gehiagokoak. Hauen artean, zazpi irakasle dira, eta bertzeak lan ezberdinak egiten dituzte.

Nafarroako Gobernuaren asmoa, Oronozko ikastetxea Lekarotzera eramatea zen. Orain ez badira berriz ere kontaktoak eraberritzen, zentru berri bat eraiki beharko dute.

Ekologi argazkien erakusketa, Arizkunenean

Urtarrilaren 29tik, Otsailaren 9a arte, irekita egon zen I. Ekologi argazkien erkusketa Arizkunenea kultur etxean. Argazki hauek, Baztango I. Ekologi argazkien lehiaketan parte hartu zuten. Irabazlea *Juan Carlos D'Arlas* izan zen, Erratzun ateratako argazki batekin.

061 Larrialdiren Telefonoa

Elizondoko Osasundegian Larrialdien telefono bat jarri dute, 061.


Zerbitzu hau, lan egunetan arratsaldeko 5etatik goizeko 9ak arte, eta jai egunetan, hogeitalau orduak.

Udalak abiazioko lurrak bereganatu

Azkeneko plenoan, Baztango Udalak 28.153,64 m² Aireko Armadari desjabetzea erabaki du, bertan kamioentzat eta Udal ibilgailuentzat Parking bat egiteko.

Hiru guardendako lanposturatu aurkeztu direnen zerrenda

Francisco Cortea, Fco. Javier Cortea, Eduardo Echavarri, Celedonio Fuentes, Cesareo Garchitorena, Javier Ignacio Garmendia, Julian Gofii, Fco. Javier Irueta, Fermin Lazcano, Pedro Maria Maya, Rafael Mitxelena eta Luis Mari Mortalena izan dira onartutakoak.



Amaiurko frontoi berria, orain dela hilabete bateko argazkia.

SARA

Zazpiak bat

MIXEL

Duela urte andana bat, Saratar batzuk hartu zuten beren gain "Zazpiak bat" izendatu talde baten apailatzea. Saratar horietarik, Jean Elizagoyen, hor dugu beti talde horiaz arte hartzeko.

Talde hori arduratzen da txistu eta euskal dantza erakusketan. Joan den abenduan, arduradun berriak izendatu dituzte: Buruzagi *Jean Elizagoyen*, hunen laguntzaile: *Jean Michel Jauregi*, *Sophie Elizalde*, *Odile Ayez*, *Laurence Jorajuria*, *Solange Mariluz* (dantzariak), *Marie-Hélène Bergara*. *Françoise Delpech*, *Anne Marie Dubournier* (gurasoak). Bi ikasgai mota segitzen



ahal dira eta hori larunbat aratsaldero, bertzea aldiz jadanik dakitenendako.

Hemen "Bettelu" ezin litaike ez aipatu. Talde honen hastapenean

jadanik hemen zen erakasle gisa eta lan hori aintzina darama beti ardura berdinarekin.

Berritz herritik kanpo erakusketak batzuen emaitako asmoa badauka-



te eta hurrek "Dantzari Tiki" hortan parte hartu nahi lukete. Talde hunek segi dezala urte ainitzez aintzina!

Ihauteriak

Otsailaren 24 eta 25ean iraganen dira. Jauntzi berizidun batzu atera-

ko dira auzoz auzo alaitasun pixka bat edatuz.

Sarako gazte elkarteak antolatzen du besta hori. Hor bilduko den dirua Sarako gaztetxea laguntzeko izanen da. Igandean, meza ondoan Donibane Lohitzuneko "Begiraleak" dan-

tzari taldea agertuko da.

Erran zaharra

Otsaileko oloa olo, martxokoa olotto, apirilekoa ez olo ez lasto.

LEITZA

Plazaola trenbide zaharra berpiztu nahiean

Oinez, zaldiz eta bizikletaz ibiltzeko izanen litzateke, izatekotan

GOTZONE & ANTÓN

Leitza, Irurtzun eta Lekunberri hor dabilta ateak joka Plazaola trenbide zaharra berreskuratu asmoz, Larraundik Andoainera artean. Duela aste batzuk irria sortarazten zuen ideia bazen ere, poliki poliki hontzen eta sendotzen ari den proiektu bat dabil hortik. Herri hauek ezik, Nafarroako Gobernua eta Mendizaleen Federazioa ere interesatzen ari dira asmo honetaz, eta baliteke bi edo hiru urtetara, ametsa zena egi bihurtzea.

Hasteko, eta lehengo pausua be-

zala, trenbidea doan terrenoen jabe-goa eskuratzea litzateke, orain partikularren esku bait daude. Hortik gainera, alegia, bidea bera moldatu; eta zubiak, tunelak eta geltokiak ere. Dena 400.000.000etan egiteko moduan delakoan daude.

Duela 75 urte

Tren zaharrak lehengo urtean bete zituen 75 urte. 1914.ko neguan egin zuen bere lehen bidaia jendearekin, Donostia eta Iruñea lotuz. Paregabeko gertakizuna izan zen hura hemen garai hartan. Hasiera batetan Plazaolako meatzulotik Andoainera burnia garraitzeko sortu zen trena,

gero jende garraioan ere ibilia urte-tan, 1953. urtean burutu zuen bere azken bidaia. Baina egun oraindik orduko bideak zutik dirau.

Orain, turismo alternatibo baten bila


Orain eskuartean darabilten proiektu honi ikusten zaion helburu interesgarriena turismo mota bat erakartzea izanen litzateke, turismo alternatibo bat. Hain zuzen, berreskuratu nahi den bide hori bakarrik oinez, zaldiz edo bizikletaz egiteko izanen bait litzateke. Tartean, atsedan leku eta ostatu batzuk jarri asmo dute ere.

Leitzako estazio zaharrean, kanping bat

Plazaolaren bidetik, Andoain eta Irurtzunen artean, Leitza da bide-erdia. Eta hemen, kanping bat egitekotan daude. Alegia, kanpinaren kostoa herriaren bizkar joanen litzateke. Eta herria momentu hontan obra izugarritan sartua dagoenez, lanak izan ditzazke proiektu hontarako diru iturriak bilatzen.

Idea hoberenaren bila

Leitzeko udalak erabaki berri du "Ideia hoberenen sariketa bat" antolatzea. Ez da ezaguera tekniko



Leitzeko estazio zaharra



haundirik eskatzen. Gauza da ideia on bat bilatzea, herriko estazioan oraindik zutik dauden etxe eta estalpeak aprobetxatuz, inguruan kanping polita bat eraikitzeko ideia aproposa eta egoki bat. Eta sari

onak eskeintzen dituzte hontarako: 200.000 pzt. diseinu hoberena eskeintzen duenarentzat. 150.000 eta 100.000 pztatako. sariak 2. eta 3.arentzat.



EZKONTZAK

Rafael Gonzalez Enguita - Maria Josefa Zamora Turriilas (Beratarra eta Oieregitarra) urtarrilaren 26an.

Gregorio Iturria Etxenike - Maria Carmen Barrenetxe Iparrea (Erratzuarra eta Azpilkuetarra) hilbeltzaren 20an.

J. Miguel Ameztoi Etxeberria - Maria Begoña Erasun Etxeberria (Urdazubiarra eta Labaindarra) otsailaren 3an.

JAIOTZAK

Andres Bergara Siles, Bera-koa, urtarrilaren 15ean.

Miren Bizente Sanzberro, Etxalarkoa, urtarrilaren 28an.

Maite Goikoetxea Apeztegia, Iruritakoa, hilbeltzaren 3an.

Beatriz Santos Sarasola, Elizondokoa, urtarrilaren 26an.

HERIOTZAK

Esteban Agerralde Etxekolonka, Donezteben, hilbeltzaren 25ean, 83 urte.

Pascual Minguez Mejias, Beran, otsailaren 1ean, 93 urte.

Maria Bengoetxea Bengoetxea, Beran, otsailaren 2an, 84 urte.

Fernando Igoa Pagola, Beran, otsailaren 2an, 47 urte.

Nicolas Irigoien Istilart, Zugarramurdin, urtarrilaren 25ean, 78 urte.

Pakita Aranburu Grazenea, Iturenen, 72 urte.

Josefina Erviti Zelaieta, Leitzan, otsailaren 1ean, 84 urte.

Jose Joaquin Larrea, Leitzan urtarrilaren 31ean, 69 urte.

Jose Javier Alaña Sanchiz, Elizondon, hilbeltzaren 23an, 24 urte.

Benito Sukilbide Ballarena, Elizondon, hilbeltzaren 24an.

Sergio Otxoa de Zabalegi Navarro, Elizondon, otsailaren 1ean.

Gil Goienetxe Iturria, Amaiurren, hilbeltzaren 28an.

Victoriana Inda Jauregi, Amaiurren, hilbeltzaren 31an.

Mikaela Etxeberria Elizetxe, Alpilluetan, hilbeltzaren 29an.

Prudentzio Borda Aroztegi, Arizkunen, otsailaren 4ean.

Urbano Etxepare Madariaga, Lesakan, hilbeltzaren 22an, 69 urte.

Jose Altzugarai Arburua, Lesakan, hilbeltzaren 28an, 83 urte.

Leitzako gaztetxea

Guk ere badugu biltoki bat izateko eskubiderik



Azken bolada honetan, Leitzako Gaztetxea dela eta, komunikabideak izan dute zer erran eta idatzirik. Urrutitik begirata, baziduriaren nunbait gerra baten aintzinean geundela, herri osoa iskanbila batetan murgilduta bizi zela. Horregatik, jakinminez hurbildu gara Leitzako Gaztetxera, zuzen eta bertatik kontuak aditzeko asmoz. Esku zabalik hartu gaituzte hiruzpalau gaztek beuren biltokiaren atarian; barrenean dagoena erakusteko inolako beldurrik gabe, deus gorde beharrik ez dutela garbi erakutsiz. Eta egia da. Han barrenean ez dago bertze munduko gauzarik. Mostradorea, lurkosua, musika tresna, barrenago areto koxkor bat tabladoarekin jantzia musika taldeek jo dezaten etab... Hori bai, paretak osotara jantziak daude ia ahaztu xamarra dagoen hippi era gogoratuz eta oraindik aintzinago indarrean zeuden anarkoen idazkiak ageri dira han-hemenka. Guk bederen, gaztetxerak beregan daraman jakin-nahia eta bizi-gogoia bertze gauza arriskutsurik ez dugu antzeman bertan.

PATXI LARRETXEA

Aizue, ze asmorekin eratu zenuten gaztetxea?

Beno, hasieran gazte pila bat ginauden eta hemen Leitzen deus egitekorik ez dagoela ikusirik, biltoki bat behar ginula pentsatu ginun. Herri honetan badago jubilatuentzako barra bat eta beste gauzak eta horregatik exigittu ginun lokal bat. Tabernetan mozkortzen ibili beharrean, ba biltzeko toki bat izatea hobe zela uste baikinun. Orduan Udaletxeari etxe bat eskatu genion eta denak ados zeudela ematen zuen, bainan azken momentuan EAkoak atzera jo zuten. Orduan okupatzea pentsatu ginun. Gero urte bateko kontratua egin ziguten baino baldintza oso gogorrak jarritz. Ekin-tzak egin behar genittun, gaueko hamarretan itxi eta horrela... Nola eginen genittun ekintzak dirurik ez bagenun eta udaletxeak berak ere egiten ez badittu? Baldintzak ez genittuen bete baino halere urtea bete baino lehen etxe guzia itxi ziguten, lehioan kristoren tablak jarritz. Orduan bertze lehio batetik sartu ginen eta berriro okupatu ginun. Gero Udaletxean bilerak hasi ziren gaztetxea onartu edo ez erabakitzeko eta kristoren jaleoak izan ziren. Gu plenoetara joaten eta gure kontra ziren kontzejal eta alkateari ateratzea ez genion uzten protesta bezala. Orduan trato txarrak hasi ziren, gure lagun bat ileetik tiratu eta eskaileratik bota zuten, Goardia

Zibila ekarri zuten, eta horrela. Oraindik ere dena ilegalki dago, okupatua eta horrela...

Nola hartzen dituzue zuen erabakiak? Baduzue ordezkari, presidente edo horrelakorik?

Bueno, guk hemen erabakiak denon artean diskutitu ondoren hartzen ditugu. Norbaitek zerbait egin nahi badu, bilera batetan planteiatzen du, eta gero erabakia hartzen dugu. Gaztetxea emateko baldintzen artean jarri zuten presidentea eta horrelakoak behar zirela baino gero ohartu ginen etzula deusetarako balio, kulpak norbaiti botatzeko bakarrik presidentea detenitua eraman baitzuten behin batean. Orduan kentzea erabaki ginun...

Herriak nola ikusten du zuen mobida?

Guk herriko jende gehiena gure kontra izan dugu. Jeringilak zirela, larru-bizitan ibiltzen ginela eta denetatik esaten zuten. Hemen beti esan dute Leitzeko gazteak direla munduko gazterik txarrenak eta horrela. Behin gau batetan argiaren kable guziak kendu zittuen norbaitek. Halere denak ez ditugu kontra izan, gau batetan, su-egurra utzi baitzigun etxe atarian.

Zein ekintza burutu dituzue orain artean? Zer egiteko asmoa duzue aintzina begira?

Ez dugu inoiz diru laguntzarik izan eta tabernan ateratako diruarekin hasi gara zerbait egiten. Kon-

tzertu dexente egin dira, aste kulturean parte hartzen dugu, pelikula astero ematen ginun, mendiko filmiak. Gure problemarik haundiena dirurik eza da. Aurrera begira futbol partidua egitea pentsatzen dugu karnabaletan Iruñako batzurrekin eta ondoren kontzertua dirua ateratzeko, etxea piskat moldatzeko. Beste gaztetxeekin ere harremanak izatten jarraitu nahi dugu, Iruñea, Andoain, Lekeitio... izan ditugu harremanak eta Hernanikoak ere etortzen dira eta badakitenez dirurik ez dugula, ba dekalde ematen dituzte kontzertuak.

Guk, iada, erran beharreko guziak erranak ditugu. Suerte ona desiatuz eta aurrera jarraitzeko animoak eman ez amaitu nahi genuke. Beraz, agur eta bertze bat arte.

Datorren 20an epaiketa

Azken orduan jakiterik izan dugunez, datorren 20rako deituak daude Iruñeko epaitegira Leitzar 5 gazte eta HBko bi zinegotzi. Epaitzen den gaia zera da: gau batean alkatea erretenitua izan zela eskaleratan eta leiho batetik ihes egin behar izan zuela. Biharamonean bere kotxea iraulita azaldu zen. Urte pilo bat eskatzen ditu fiskalak "por desacato e insultos", 5 gazteak eta zinegotziak denak zaku berean sartuz. Hontaz gainera, beste epaiketa bat dago bidean.

Gaztandegiak *gure baserriendako alternatiba bat*

Esnea berez errez eta agudo gal-
tzen den elikagaia denez, gazta
egitea izan zen gizakiak asmatu
zuen modua, elikagai eder hau
urte osoan gorde eta jan ahal
izateko. Asmakizun hau kristo
jaio baino mende batzuk lehen-
gokoa omen da eta Mediterraneo
ekialdean dauden herriei zor



Geroztik luze joan da eta,
gazta ere asko eginen zen,
mundu guztira hedatuz.
Gure baserrietara ere iritxi
zen. Gaur egun baserri auniztan egi-
ten da, batzuetara etxerako soilik eta
bertze batzuk saltzeko ere bai.


Hala ere, bertze arrazoi batzuren
artean, Estatu Española Europako
Ekonomi Elkartearen sartu dela eta
nekazaritza osoa eta berekin gazta-
gintza birmoldaketa prozesu sakon
batean aurkitzen da. Europatik datoz-
kigun haize nagusiak produktibita-
tea, zentralizazioa... eta abar izan dira.
Beraz, haize gehienak bezela ez sobe-
ra mesedegarriak; arrunt zaila bait da
gure baserrietan produkzio haundiak
ateratzea: ttikiak direlako eta maldat-
suak (mekanizatzeke zailak). Hala
ere gure baserriek iraun nahi badute
egoera berri honetara egokitzen saia-
tu beharko dute. Nere ustez ardi-gaz-

ta posibilitate bat izan daiteke: alde
batetik ardia ongi egokitzen delako
hemengo lur maldatsuetara eta bertze
aldetik gazta guk eginez gero, irabazia
haunditzen dugulako. Hau da: saiatu
beharko genuke geuk ateratzen ditugun
lehengaiak (materia prima)-k geuk trans-

formatzen eta geuk saltzen. Kate guz-
tia –sorreatik eroslearaino– gure es-
kuetan egonez gero irabaziak haundia-
gotuko genituzke.

Kasu honetan auzoka edo herrika
gaztandegiak sortu beharko genituzke,
gaurko teknikaz baliatuz kalitate haun-
diko produktuak sortzeko. Eta, bert-
zalde gaztandegi ttiki aunitz elkartuz
gero ahal izanen genuke, gaur saltzeko
hain beharrezko den propaganda eta
marketina egitea.

Nire ustez honela merkatuan kon-
petitzeko aukeran egonen ginateke
zeren etxeko esnearekin –garbitasuna
zainduz eta gaurko teknikaz baliatuz–
kalitate haundiko produktoa egin ge-
nezake; gaztandegi industrialak baino
aunitzez hobeto eta bertzalde hiru
edo lau artzain juntatuz gero gaztand-
egi txukun bat eginez, zeren tresneria ez
da hain garestia.



JON LARRETXEA

Aktibitateak eta plangintza gelditurik

Momentu honetan eskualde osorako kirol koordinatzaileak gabe

Azken urteotan eskualde mailan lortu izan den kirol egituraketa eta aktibitateen plangintza, egoera larrian aurkitzen da momentu honetan eta baliteke —arazoa ez bada berehalaxe konpontzen— aurten egin beharreko hainbat eta hainbat ekintza eta aktibitate goitik behera uztea.

Lerro hauetan saiaturako nahiz azaltzen ahalik eta errexen kirol arlotan dagoen egitura, antolaketa eta honek lortu izan dituen emaitzak.


Orain dela hiru urte Nafarroako Gobernuak kirol munduari bultzada emateko azpiegitura bat sortu zuen, Nafarroa osoa eskualdeka zatituz —gurea Baztan-Bidasoa da— eta eskualderako kirol koordinatzaile bat jarritz. Gureari dagokionez Iñigo Doria izan zen; aulki bat, mahai bat eta telefono bat bakarrik izan zituen hasmentako material guztiak.

Poliki poliki eta gogo aunitz jarritz Eskualdeko kirol egituraketa lantzen hasi zen, hiru urte pasata lortu izan dituen emaitzak ezin hobekak izan direlarik.

Alde batetik lortu du zonalde bakoitzean —Baztan-Malerreka-Leizaran eta Bortzirriak— kirol koordinatzaile municipal bat sartzea kirola herrietan bultzatzeko eta beste aldetik gaur egungo estrukturaletak, emaitza ezin hobekak ekarri ditu.

Datu orokor batzuk emanez, erran azkeneko urte honetan, aintzinekoekin konparatuz aktibitate kopurua hirukoiztu dela (hiru aldiz haunditu) eta baita partehartzaileen kopurua.

Eskualde mailan 1988. urtean egin-dako 13 aktibitate, 40 aktibitate pasatu da 1989ean, eta 900 partehartzailetik 3.500etara; hau da, aurrerapen izugarria.



Iñigo Doria, 3 urtez eskualdeko osoko kirol koordinatzailea izan dena.

Zonalde mailan ere gauza bera pasatu da: 1988 urtean Baztanen 4 aktibitate 10era pasatu da Bortzirriak, Malerreka eta Leizarango zonaldeak hutsetik hamalaura, hamasei eta hamar aktibitate berri izatera pasatu izan da 3.500 pertsona baino gehiagok parte hartu izan duelarik.

Datu interesgarri hauen zergatia, kirol koordinatzaileen lana eta Iñigo Doriaren gestio ezin hobekari esker izan dela ziurtzat ematen dut.

Lan talde honek lortu duen dinamika eta jarri izan duen enpeñu eta imajinarioari esker ditugu datu hauek.

Arazoa orain dela hilabete batzuk etorri da, Iñigo Doriari hiru urterako kontratua bukatu zaionean. Diputazioak nahiz eta plaza hori bere funtzionarioei esker gaur egun arte ez du inork hartu, bitartean Doriak bere gogoz jarraitu du egiten lana. Baztan-Bidasoako Udalek mutil honen kapazitatea eta ahalmena ikusirik kontratua berritzea eskatu diote Diputazioari, baino honeri berdina zaio inutil bat kontratatzea lehengoa hartu baino lehen (garbi ikusten da).

Horrela ba, egoera hau ikusirik kirol koordinatzaile municipalak —Tati Urrutia, Mikel Ibarrola, Iñaki Perurena eta Mattari Altzuarlek— jende guztiari adierazi nahi diogu:

1.- Eskualdeko kirol koordinatzailearen faltagatik Nafarroako beste Eskualdeekin parekatuz, Nafarroako Gobernuak gudanako jarrera diskriminatzailea azaldu nahi dugu.

2.- Eskualdeko kirol koordinatzailearen faltagatik, —informazioa, antolaketa edo botere ekonomiko eza— gure zonaldean Nafarroako III kirol jolasak geldialdi bat hartzen dutela, horrela 32 talde eta 500 gazte, eraberean, kirolrik gabe geldituz.

3.- Eskualdeko kirol koordinatzailearen faltagatik —Nafarroako Gobernuarekin 1990ko egin behar den konbentzioaren informazioa eza—, ez daukagu eginkizun boteretik 1990. urteko kirol plangintza egiteko. Beraz, aktibitate zonalak eta eskualdekoak gelditzea behartzen gaitu —aktibitate aunitz baliteke ez antolatzea arazoa ez bada berehala konpontzen—.

4.- Orain arte izan den Eskualdeko kirol koordinatzaileari —Iñigo Doria— gure batasun osoa adierazten diogu, bera izan baita gaur egungo Baztan-Bidasoako kirol egituraketaren ardatz nagusia. Horrexeagatik, kontratazioaren beharra adierazten dugu, gaur egun arte lortu dena asentatu nahi bada bederen.

5.- Hemendik aintzinat, eta arazoa konpondu arte, kirol koordinatzaile municipalok guri dagokigun lanari bakarrik ekinen diogu, hau da; kirol lokalei bakarrik.

Goian jartzen diren puntuengatik, gure jarrera eta arazoaren larritasuna ulertzea eskertzen dizuegu.

MATTARI ALTZUARTE

Edaten ikasi

“Edatea plazer haundi bat dela” dio abesti batek.

Experientzia, ordea, arriskutsua ere badela erraten digu. Batez ere, benetan eta osokiro nor berez bizi aurrera eramateko gauza ez direnentzako.

Nortasun sendo eta sana duten horiek jakinen dute neurritz eta behar baino gehiago ez edaten.

Heldugabeak, ziurtasunik es dutenak edota beldurriak direnak, aldiz, alkoholean bilatuko dute babesa beuren “penak itzaltzeko” edota “balorea hartzeko”.

Edateko behar hori ohitura bihurtzen denean dator arriskua, edo areago, eritasuna.

Alkohol gehiegi edaten denean, kasualitatez edo ohituraz, arriskuak ondoko bidagurutzean daude zain.

Gizartearentzako arriskuak, gorputzaren osasunarentzako, norberaren nortasunarentzako.

Trafiko eta lan istripuak, “cirrosis hepaticoak”

eragindako heriotzak, zirkulapen arazoak eta

alkoholaren eragiñez ezabatutako

nortasunak dozenaka konta litezke.


Ardo ona goxokiro zaporetzetik

alkohola garrafoika edatera alde

ederra dago.

Nola edan ikasi behar dugu.

OSASUN MENTALEKO TALDEA



Aro berriaren atarian

Kiromantzia

Ekialdeko lehengo kultu-
retan ongi ikusia baze-
goen ere, mendebaldeko
Europar ez da horrela
izan. Ijitoek ekarri zuten Erdi
Aroan eta sorginkeria bat zela uste
izan da. Elizak galerazi zuten, eta
isilpeko gauza zenez, XVIII. men-
de arte ez zen aunitzik zabaldu.

Eskua aski organu konplexua da,
hainbertze hezur, gihar -muskulo-
tendoi, zain eta nerbiokin. Edozein
gauzatarako beti eskua era-
biltzen dugu. Indar egitea,
zerbait hartzeko modua,
lan klasea, hunkipenak,
dena eskuetan markatuta
geratzen zaigu. Pixkanaka
eragin hauek eskuari -eta
gorputz guztiari- luzera
forma eta zimurtasun be-
rezi bat ematen diote eta
ez daude bi pertsona esku
berdinekin. Bestalde eskua
gobernatzen duen burmi-
neko zatia nahiko handia
da.

Kiromantzia hitza gre-
kotik dator: *kiros* eskua da,
eta *mantzia* asmatzeko edo
igertzeko artea. Zientzia
maila badaukalakoan, ba-
tzuk kirolgia eta palmo-
logia ere deitzen dute.

Eskuak mahai gai- nean

Eskuak irakurtzera-
koan kontutan eduki be-
har da pertsonaren jarrera

ere, eta ariketa ximple honek aunitz
adierazten ahal digu. Paratu eskuak
mahai gainean eta erreparatu.

Eskuen arteko distantzia:

Zenbatez eta haundiagoa: Per-
sonalitate irekiagoa, bizitasuna, kon-
fidantza bizian eta bere indarretan.

**Zenbatez eta ttikiagoa, eskuak
elkar ukitzen:** Inhibizioa edo indar
eskasia.

Behatz lodiak elkar ukitzen:
Diplomatikoa eta kontsideratua.

Behatzen arteko tartea:

Tartea ttikia edo behatzak junto,
pertsona beldurtuta, kizkurtuta bizi
da, ez du konfidantza eta indepen-
dentzirik. Tarte haundiek ausardia
eta kemena adierazten dute.

Indice-erdikoa: Bere kabuz
pentsatzeko ahalmena, pertsonaren
originaltasuna.

Erdikoa-anularra: Segurantzaren
premia -familiarrena edo ekono-
mikoa-. Ezkerreko eskuan junto: be-
harretan aurkitzen da; be-
rezi: etorkizunak ez du
kezkatzen.

Anularra-ttikia: Inde-
pendentziakin mugitzeko
eta egiteko ahalmena.
Behatz ttikia arrunt bere-
zia: solaserako eta atera-
tzeko gogoia. Apetito se-
xuala.

**Eskuak eta behatzak
makurka:**

Intseguritatea eta kez-
kak. Zenbat eta okerragoak
orduan eta arazo haundia-
goak. Osasuna: reuma ere
izan daiteke.

Guzti hauek ezkerreko
eskuan badaude orainean
dire eta eskuinekoan ba-
daude iraganean edo asi-
milatuak dire.



FERMIN ALTZUGUREN

ETXEBIZITZAK

-Etxe edo baserria erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Mari. Tfnoa: (948) 59 40 54

-Lesaka. Pisua salgai. Bittiria kalea-Gurutze etxea 2.C

-Bera. Pisua salgai. Eztegarra ibilbidea 19, 2.A Tfnoa: 630455

-Bera. Pisua salgai. Eztegarra ibilbidea 17, 4.D Tfnoa: 630964/257802

-Bera. Pisua salgai. Itzean. Tfnoa: 630743

-Bera. Baserri bat erosi edo alokatu nahi dugu. Argibideak Larrutxuki 1. Tfnoa: 630532

-Lesaka. Pisu bat alokatu nahi dugu Lesakan. Erreferentzi onekoak izan arren, kale gorrian gaude. Deitu tfno. honetara: 637796

LANA

-Frantzes klaseak ematen dira. Maila guztiak. Tfnoa: 637969 Lesaka.

-EGB klaseak ematen dira. Tfnoa: 630146 Bera.

-Gitarra, baxua eta bateria klaseak ematen dira. Interesatuak hurbil zaitezte Laia musika dendara. Tfnoa: 631059

SALEROSKETAK

-Ordenadore polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. Deitu 631188 telefonora.

-Idazmakina elektronikoa saltzen da. CANON markakoa. Interesatzen bazaizu deitu 631188 telefonora.

-Pentax argazki makina baten zat, bigarren eskuko objetiboak nahi ditugu. 28-80mmko bat bazenu oraindik hobeki. Tfnoa: 631188

-Kanpin denda eder bat salduko nuke, merke, konbenentziako prezioan. Interes dutenentzat Zubietan bizi naiz, Ibarrenea etxean. Asteburutan fijo, astegunetan atsaldez eta gauez.

-Frigorifiko eta labadora baten beharrean nago. Modemoago bat erosi eta zaharra non sartu ez badakizu, nik eginen diot lekua. Diru kontua konponduko dugu. Tfnoa. 637796 Patxiz galdetu.

DENETARIK

-Erretratuak marrazten ditut. Galdetu Xut arropa dendan. Tfnoa: 637410 Lesaka.

-Negozioa ixteagatik likidazio osoa egiten ari gara. "Kirolak" denda, Lesaka.

-Kordioi zahar baten bila nabil, parranda egiteko, dohain edo merke. Norbaitek edukiz gero Leitzako Euskaltegi "Ikastari"ra dei dezala. Mila esker. Fraz.

HARREMANAK

-Txarra eta begi urdinari. Bapatean monja bihurtu ote gara? Hirugarrena. Igantzi. Maite zaituztet. Mua!!!

-Pottoko. Maite zaitut eta betirako izan dadin gure erlazioa espero dut. Maitemindu bat. Amaia.

-Irakasle burusoilari: burusoila izatea ez zait axola gorputzean martxa haundia baldin baduzu. Lehen froga Lesakako inauterietan, Zialdo ostatuan, larunbatean. Eraman *ttipi-ttapa* besapean. Lesakako martxosa.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRIGUREBULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

K O N T R A P A S A

Erantzuna zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dago-
kion laukira.

Beheko taula osatu ondoan, nafar erranairu baten aitzinean suer-
tatuko zara

1. Mugimendu erritmikoa
2. Senarraren lagun
3. Gaitz kutsakorra
4. Gustoko, atsegin
5. Bederen, behinik behin
6. Pertsona multzoa
7. Ematen du
8. Ebasle ipartarra
9. Sara eta Bera artean
10. Indarrik gabeak

D	7	A	2	F	10	E	2	B	4	G	4
A	5	D	10	H	3	E	3	B	3	G	1
E	10	B	7	H	5	H	6	D	5	F	3
B	8	H	8	G	2	E	1	E	5	D	3
F	5	G	7	H	2	E	9	F	7	F	6
D	2	A	7	E	7	G	9	F	1	B	10
A	4	I	H	7	G	3	E	8	I		
F	8	G	6	B	2	I	A	3	D	4	
G	8	E	6	A	8	F	2	G	10	B	6
A	9	B	1	B	9	A	6	D	8	A	1

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A										
B										
D										
E										
F										
G										
H										

BOSTEKO BIHURRIAK

Ondoan dituzun hamabortz bortzeko hi-
tzak kokatu behar dituzu zein bere taulan.
Jakin ezazu hitz bakoitza berdin irakur
daitekeela ezker eskuin eta goitik behera.
laguntza gisa, bi hitz ematen ditugu bere
tokian.

BALOI BILDU OTZAN
IKARA ZAIGU ITOAK
DARIT ARATZ IZANA
GERRI UKATU LATZA
UNAIA LORRA AZKEN

		L		
		O		
L	O	R	R	A
		R		
		A		

	A			
A	R	A	T	Z
	A			
	T			
	Z			

AMAIUR



S/7670/613

Vegasa[®]

sukalde eta bainu altzariak

Rosa Seminario 13 - DONEZTEBE

Tfnoa. (948) 59 44 00